BIZITEGI ERAIKINA — ETXAGUE JENERALA 2

C MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica, 1886

Deskribapena

Aldamar, Erregina Erregeordearen eta Etxague Jeneralaren kaleek eta Salamanca pasealekuak mugatutako etxadiko etxe multzo bateratu baten barruan dago. Jose Maria Mujica obra maisuak eraiki zituen (10 etxetarako proiektu bateratua). Xehetasun eklektikoak sartuta tradizio neoklasikoaren barruan, merkataritza etxabeen, lau oinen eta mantsardaren tratamendu bateratuagatik nabarmentzen dira. Etxeetako batzuei (kasu honetan bezala) begiratokiak gehitu zaizkie. Oinplanoak erakusten du maila bakoitzean 200 m² inguruko etxebizitza bakarrak okupatutako ohiko etxe burgesa, bi orientazio nagusirekin, kalera eta etxadi patiora; gainera, oin bakoitzeko bi etxebizitza aurrez aurre jartzen dituen mehelinean kokatutako patioetara irekitzen diren hainbat gela daude. Aldamar eta Etxague Jeneralaren kaleen bestelako hierarkia islatu egiten da eraikin honetan: goi oinen akaberako materiala desberdina da batean eta bestean (harlandua eta emokadura, hurrenez hurren).

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:
A.- Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: alakako begiratokia.
B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandu elementuak.
C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.